

inteligencia, en su lucha constante y en su incesante aspiración á la verdad y al bien.

Terminé, por mi carácter oficial en aquellos momentos, dando las gracias al público que tan poderosamente contribuyó á la solemnidad del acto, y á cuantos señores se habian dignado tomar parte en él, defiriendo á la súplica encarecida de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Guipúzcoa.

Sabe que soy de V. afmo. am.^o y s. s. q. s. m. b.

MANUEL M. AÑÍBARRO.

GAZTELUGACH¹

Soldadu-zar baten
Biskaiko oroitza.

Bermeon, euskal errian diran ichas baster politen artean, dago Gaztelugach, Machichako eta San Pelayo bitartean, erritik ordubiko bidean eta Machichakoren Bilboko aldera.

Au da ichasoan dagoen ach andi bat legorrari batuta begibiko zubi trosko batekin bakarrik; eta aña latza ze gañera eltze-ko igon biardira, zubian bertan asita, lareun bat armalla.

Gari gañean dago Donibanen elexa, inguru aretan deboziño andikoa, eta batezere maririelen artean. Oek euroren larrita-sunetan beti ara biurtutenditube euron begiak eta biotza eta santu arentzat izatendira euroren agindu eta eskabideak. Sarri ikustendira ara igoten euroren chalupako tresnak ganean ditubesala eta entzutea daukak iñor egondabela, askoren artean lepoan ebela, ichaskeari iges egindeutzen chalupagas.

(1) ¿Gaztelu gacha edo Gaztelu acha?

Monografía premiada con accésit en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892.

Emakumeak ikustendira, euroren senar edo umeak gaitik eskatutera dogasanak, arek armalla gustiak belaun-biko igoten.

Aiñ goyan eta leku chikian dago elexori ce pentzatuleiteke iverseak eruanbiardabela.

¿Baña elexori beti izanda elexa, izanda lelengo gazteluba edo gausa biak aldabatera anchinako denboretan asko ziran besela? Au da inok esdakiena, baña jakiña da gausa biak an izan dirala eta neuk ikusiditubas, orain ogeta ama zortzi urte, ondiño gaztelubarenak ziran orma zatiak.

Jakiña da orraitio elexori dala Biskaiko zarrenetariko bat, eta amargarren gisaldean egiña dala ango echejaun eta nekeza-leak gaitik eta amalaugarren gisaldean erdirutz On Inigo Ezkerra, Biskaiko seigarren Jauna, eta bere emasteak ipiñibela Aragoko San Juan de la Peña-ko apaistegiaren mendapean eta On Lope Biskaiko Jaunak emonebala, Kristoren jayotzako milla eta berrogeta irugarren urtean San Norbertoren praillieri, sein-tzuk an eukieben apaistegia.

Lelengo eginsan elexak irauneban amairugarren gisaldera arte, baña, singlea izanda, jausi baño len bota biar izaneben eta egieben barria.

Amalaugarren gisaldean, orduban ziran gerraren bildurragaitik, prailleak joanziran diñubanes Salamankara eta eruausitubesan elexan ziran erlikia eta balioko gausak: andik aurrera es san gelditu Gaztelugachean abade balar bat baño bera sainduteko; eta San Pelayo-koak lagunduta, bioren artean ango jenteari mesa esan eta beste elexa-koak emoteko.

Mesede asko eginditu santu orrek esatendabenes eta euroren artean oroitagarriena da milla bost eun eta bederatzi garren urtean arkituba.

Iraillaren bederatzi garren egunean ikusiziran ontzi bat achen gañera ichaskiak botata eta beste asko galernak eroyasala. Leku aretan es san, eta es dago oraiñ bere, chaluparik es eser galdubiarziraneri laguntasuna emateko eta ango jentea, biotza min-beratuba eta negarra begietan ebala, joan san elexara santubari eskatutera mariñel gaisoaren bizitza. Santubak entzunsitusan euroren negar eta eskabideak eta aldabates ichasoa baretu eta aisea jirata ontziak jarraitueben euron bidea. An mesede au oroitzena bestearen artean sergaitik ontzi aretan etosan Flan-

destik Don Felipe, Españako Principe, eta bere laguntasuneko jente andiak.

Baña es da santubagaitik bakarrik oroitzgarria Elexa-Gaztelu-au; oroitu biarda Biskaiko kondairan daben izana gaitik.

Milla irureun eta ogeta amabi garren urtean, Gaztelako errege On Alonso amaikagarrenak, beretzako naita Biskaiko Jauntza egieutzan gerra On Juan Nuñez de Lara-ri, seiñ san Biskaiko amazortzi garren Jauna, Ona Maria Lopez de Haro-ren senarra zalako.

Biskaitarrak, erregeri aurre egiteko, sendatu-situbesan leku-ben artean san bat Gaztelugach, eta, ara batusan Jauna bere mendapekoekin: jarraitusituan erregek baña alperrik ernausituan Errialdeko aldapara, gaztelubaren aures-aurre, bere soldadu eta orduban ziran gerrarako kaño eta makiña obeenak. Gaztelugachean ziranak egieutzen aurre eta, zubia pasatu esiñik, esiñ artueban gazteluban eta kanpoko aldetik ziranak bere egiteutzen besela al eben kaltea, ogeta amargarren egunean errege jirasan garaituba Gaztelarutz eta eginsituan bakeak Jaunarekin, isentatuta On Juanek, andik aurrera, izangoebala baketan Biskaiko Jauntza eta errege es zala geyago esango bere kartetan Biskaiko Jauna.

On Juan illzanean geldituaan Biskaia bere seme On Nuño de Lara y Haro emeretzi garren Jaunarentzat, iru urteko umea zanean. Orduban san Gaztelan errege On Pedro lelengoa, Biotz-gogorra, seiñek es eban Jauna ondo nai, sergaitik arek bere beretzako nai eban Biskaiko Jauntza, eta egieban alegiña Jauna arrapatu eta illtzeko.

Jaunaren jayola Ona Menzia de Abendaño-k, jakieban seintzuk ziran erregeren asmoak eta joan san Gaztelugachera an Jaun umea leku seguruban eukitzera; baña es san luzeroko izan sergaitik bost urte situsanean illzan Jauna Bermeon elgorriagas.

Urtean-urtean Agorrillaren ogeta zortzi garren egunean egitenda Gaztelugachean erromeria eder bat, nora joatendiran Mundaka, Mungia, Bakio eta beste leku askotako jenteak: lelengo izatenda mesa eta sermoia Bermeoko ayuntamiento gustia an dala eta gero dira dantzak eta baskariak.

Gustiz gausa ederra da Errialdetik ikustea Gaztelugachean gora eta bera dabiken jentea, aurean ichaso zabala ontzi eta

chalupas beterik eta, egun argia hada, Santander baño arutzago diran mendiak eta Prantzia aldetik Kapbreton arte, eta norberan inguruban jente aren dantza eta joan etorria, eta orren gañera euron barra, barriketa eta sanso edo irrintzi alayak entzutea.

Amalau garren gisaldean eginsan elexa es da geyago, denborak, aise gogorrak, ichaskiak, kresalak eta gisaldi onetan izandiran gerrarekin ea jaramon egiteak zartueben, eta orain dagoena, debotuaren artean batuiko dirubas egiña, egieban milla zortzireun eta larogeta bost garren urtean On Seberino Achukarro Bilbotar echagilleak.

Elexa botasanean, barrio egiteko, billatuziran sepultura zarrak eta Gaztelako errege On Fernando irugarren Santubaren dirubak, On Juan Delmas sanak, bere liburu Gaztelugachen diñubanes.

Liburubau es da salduteko egiña; On Baleriano Gojeaskoechea Delmas jaunaren suiñak egindeust mesede ikusteko ematea, liburu orretarik artudodas gausak sortuziran urte eta egunak; barriak neuk batubak dira kondairan eta neure gazte denboran Mundakan bizinitzanean.

RAFAEL MURGA TA MUGARTEGI.

